



# Eragin

## Euskara eta Literatura

DBHko 3. mailarako Euskara eta Literaturarako **Eragin** liburua Zubia Editoriala, S. L.ren eta Santillana Educación, S. L.ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, taxutu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

**Josu Goikoetxea**  
**Jon Ander Rojo**  
**Nerea Atxega**  
**Lander Azaola**  
**Joseba Santxo**

EDIZIOA

**Ainhoa Basterretxea**  
**Josu Goikoetxea**  
**Jon Ander Rojo**

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

**Joseba Santxo**

Liburu honetako ariketak ezin dira inola ere liburuan bertan egin.  
Ariketetan proposatzen ditugun taulak, eskema eta gainerako  
baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

| UNITATEA  | KOMUNIKAZIOA                                                   |                                                          | HIZKUNTZAREN ERABILERA                         |                                                   | KOMUNIKAZIOA                                                                                 |
|-----------|----------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------|------------------------------------------------|---------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------|
|           | Ataria                                                         | Irakurmena                                               | Gramatika                                      |                                                   | EGITEN JAKIN<br>Komunikazio-jarduerak                                                        |
| 1         | <i>Itsaspeko altxorra</i><br>• San Joan ontzia                 | <i>Itsas handian</i>                                     | Izen-sintagmaren<br>erabilera: adjektiboa      | Izen-sintagmaren<br>erabilera: izenlaguna         | • Aurkezpen-bideo bat egitea<br>• <i>Komiko bat danborradan</i><br>• Norbere fitxa           |
| 2         | <i>Denok batera</i><br>• Aukera ederra!                        | <i>Comète. Ihesbide-sarea</i>                            | Deklinabidea:<br>kasuak eta mugagabea          | Aditz-sintagmaren<br>erabilera: postposizioak     | • Proiektu bat aurkeztea<br>• <i>Boluntario-lanaren onurak</i><br>• Slogana                  |
| 3         | <i>Elkar ulertzen</i><br>• Euskararen misterioa                | <i>Bikien hizkuntza<br/>sekretua</i>                     | Aditz-sintagmaren<br>erabilera:<br>aditz-izena | Aditzaren aspektua                                | • Ikerketa-lana burutzea.<br>• <i>Mutiko basatia</i><br>• Mapa                               |
| 4         | <i>Balego eta balitz</i><br>• Mariren familia                  | <i>Bildumagile xelebreak</i>                             | Aditz laguntzaileak:<br>indikatioa             | Aditz-sintagmaren<br>erabilera:<br>aditz bereziak | • Informazio osagarria ematea<br>• <i>Kromo trukerako teknikak</i><br>• Esteka               |
| 5         | <i>Kalterik ez edanak</i><br>• Bertoko labela                  | <i>Sado, tearen bidea</i>                                | Aditza:<br>baldintza hipotetikoa               | Perpauseko osagaien<br>ordena.<br>Galdegaia       | • Informazio nahasia argitzea<br>• <i>Iturrian zer dago?</i><br>• Eskema                     |
| 6         | <i>Maitasuna vs. gorrotoa</i><br>• Urkiolako harria            | <i>Pilularen liluraren kontra</i>                        | Aditza: ahalera                                | Perpaua:<br>perpau osagarri<br>izenlagunak        | • Lehentasunak zedarritzea<br>• <i>Distantziarik laburrena</i><br>• Zerrenda                 |
| 7         | <i>Giza eboluzioa</i><br>• Eureka! Zientzia<br>Museoa          | <i>Bertsolarien burmuina,<br/>zientziaren lagungarri</i> | Aditza: ahalera                                | Perpaua:<br>konparazioak                          | • Gailuen funtzionamendua azaltzea<br>• <i>Konputagailua burmuinaren aurka.</i><br>• Etiketa |
| 8         | <i>Baga, biga, higa</i><br>• Errotarien<br>zenbakuntza-sistema | <i>Izendegiak, gurasogaien<br/>tresna</i>                | Aditza: agintera                               | Aditza: NOR-NORK<br>moduzkoak                     | • Kronometropean azalpena ematea<br>• <i>Urte honek ez ditu hamabi hil</i><br>• Agenda       |
| 9         | <i>Etxe flotarriak</i><br>• Erraldioen bisitak                 | <i>Enbata Bizkaiko golkoan</i>                           | Aditza: subjuntiboa                            | Perpaua:<br>helburuzkoak                          | • Denboraren-lerro bat osatzea<br>• <i>Bou</i><br>• Sintesia                                 |
| 10        | <i>Pilotaren jatorria</i><br>• Xistera                         | <i>Jokaleku ala arteleku?</i>                            | Aditza:<br>subjuntiboa Nor-Nork                | Perpaua:<br>ondoriozkoak                          | • Argazki-galeria bat egitea<br>• <i>Horma genialak</i><br>• Argazki-oina                    |
| 11        | <i>Lurrak eman ahala</i><br>• Arditurri                        | <i>Ez da urrea distira duen<br/>oro</i>                  | Aditza:<br>Subjuntiboa<br>Nor-Nori-Nork        | Lokailuak I                                       | • Ondorioak ateratzea<br>• <i>Norena da altxorra?</i><br>• Asmakizuna                        |
| 12        | <i>Uren artean</i><br>• Izaro                                  | <i>Itsasaldeko leinu<br/>inbaditzaileak</i>              | Aditza: berrikusketa                           | Lokailuak II                                      | • Zergatiak inferitzea<br>• <i>Jendetan den ederrena</i><br>• Kontzeptu-mapa                 |
| ERANSKINA | Ariketategia, taulak, eskemak, programa osagarriak...          |                                                          |                                                |                                                   |                                                                                              |

| HIZKUNTZAREN ERABILERA                |                                                           | KOMUNIKAZIOA                                                                          | LITERATURA-HEZKUNTZA                                                                               |                                               | AMAIERAKO JARDUERAK                                                        |
|---------------------------------------|-----------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|
| Lexikoa                               | Ortografia                                                | EGITEN JAKIN Testu-tipologia                                                          | Jakingaiak eta testuak                                                                             | EGITEN JAKIN                                  |                                                                            |
| Joera-atzizkiak<br>16                 | Bat eta batzuk<br>17                                      | Gertakari historikoa<br>• <i>Rosetta harria, aurkikuntza bikoitza!</i><br>18          | Lore Jokoak<br>• <i>Maria alegiazkoa</i><br>AGUSTIN ETCHEVERRY<br>20                               | • Egilearen asmoa ulertzea<br>22              | • <i>Kontzientziaren kateak</i> <a href="#">▶</a><br>24                    |
| Gaia adierazten duten atzizkiak<br>36 | Hiru eta lau<br>37                                        | Dibulgazio testua: arazoa-konponbidea<br>• <i>Kilogramo berria denontzat</i><br>38    | Bertsolaritza I: XIX. mendea, urrezko aroa<br>• <i>Zaldi baten bizitza</i><br>BILINTX<br>40        | • Bertsolariaren estiloa identifikatzea<br>42 | • <i>Euskararen boluntarioak</i> <a href="#">▶</a><br>44                   |
| Modu-atzizkiak<br>56                  | Erdal izen berezien deklinabidea<br>57                    | Arautegia<br>• <i>Bizimodu iraunkorra eramateko dekalogo</i><br>58                    | Bertsolaritza II: tradiziotik modernitatera<br>• <i>Itsuak bere maiteari</i><br>ANDONI EGAÑA<br>60 | • Bertsoaren ezaugarriak identifikatzea<br>62 | • <i>Euskara, kode sekretua</i> <a href="#">▶</a><br>64                    |
| Ekintza- eta ondorio-atzizkiak<br>76  | ARAZIren idazkera<br>77                                   | Iritzi-artikulua<br>• <i>Atzerrian hizkuntzak ikasteko bekak: aukera aparta</i><br>78 | Sarako eskola<br>• <i>Euskaldunei</i><br>ESTEVE MATERRE<br>80                                      | • Testua eta ezaugarriak identifikatzea<br>82 | • <i>Aitonak zerbait du ganbaran</i> <a href="#">▶</a><br>84               |
| Kortesiako esapideak<br>96            | Siglen erabilera<br>97                                    | Albiste<br>• <i>Dantza perfektu baten gisan</i><br>98                                 | Euskalki literarioak<br>• <i>Belea eta Azeria</i><br>BIZENTA MOGEL<br>100                          | • Testua interpretatzea<br>102                | • <i>Coco gelado</i> <a href="#">▶</a><br>104                              |
| Hitzen irudizko esanahia<br>116       | Laburduren erabilera<br>117                               | Erreportaje<br>• <i>Euskara eta teknologia berriak bidelagun</i><br>118               | Ohitura-eleberria<br>• <i>Joanes artzaina</i><br>TXOMIN AGIRRE<br>120                              | • Pintura eta literatura lotzea<br>122        | • <i>Aspertzearen onurak</i> <a href="#">▶</a><br>124                      |
| Hitzak sortzeko bideak<br>136         | Maileguen idazkera<br>137                                 | Eskema<br>• <i>Musika tresnak</i><br>138                                              | Narrazio labur modernoa<br>• <i>Playback</i><br>ANA MALAGON<br>140                                 | • Narrazioko elementuak identifikatzea<br>142 | • <i>Ada Lovelace, konputazioaren sortzailea</i> <a href="#">▶</a><br>144  |
| Mailegutza<br>156                     | Puntuazioa: parentesia eta kakotxak<br>157                | Txostena<br>• <i>Gazteak, Kultura eta Teknologia berriak</i><br>158                   | Literatura-teknika berriak<br>• <i>Ekidazu</i><br>MIKEL ZARATE<br>160                              | • Testuaren egilea identifikatzea<br>162      | • <i>Urte bisutsaren madarikazioa</i> <a href="#">▶</a><br>164             |
| Arlo lexikoa: artea<br>176            | Puntuazio-markak: berrikusketa<br>177                     | Akta<br>• <i>Gelako bilera: ikasbidaia</i><br>178                                     | Literatura-bandak: Pott eta Lubaki<br>• <i>Walt Whitman-i</i><br>ASIER SERRANO<br>180              | • Diskurtso jakin bat identifikatzea<br>182   | • <i>Portugaleteko gasolinoak</i> <a href="#">▶</a><br>184                 |
| Arlo lexikoa: bidaiak<br>196          | Txistukariak eta <i>h</i> letra<br>197                    | Eskabidea<br>• <i>Baliabide gehiago</i><br>198                                        | Itzulpengintza<br>• <i>Itzulpengintza</i><br>IBAN ZALDUA<br>200                                    | • Testu bat itzultzea<br>202                  | • <i>Bai frontoi bitxia!</i> <a href="#">▶</a><br>204                      |
| Arlo lexikoa: zientzia<br>216         | Ordenagailuz idaztea: letra etzana eta letra lodia<br>217 | Aurkezpen-gutuna<br>• <i>Hona hemen</i><br>218                                        | Antzerkia<br>• <i>Mugako loreak</i><br>YURRE UGARTE<br>220                                         | • Antzerki-testu laburra sortzea<br>222       | • <i>Zergatik dute itsulapikoek txerri forma?</i> <a href="#">▶</a><br>224 |
| Arlo lexikoa: Internet<br>236         | Arau ortografikoak teknologia berrietan<br>237            | Curriculum<br>• <i>Nire berri</i><br>238                                              | Saiakera<br>• <i>Euskara desberdina, zertan?</i><br>TXILLARDEGI<br>240                             | • Saiakera zati bat bereiztea<br>242          | • <i>Basamortuko misterioa</i> <a href="#">▶</a><br>244                    |

DBH 3ko Euskara eta Literaturarako **ERAGIN 3** liburua 12 unitate didaktikotan antolatuta dago. Unitate bakoitzean hiru programa nagusi daude: Ahozko eta idatzizko **komunikazioa**, **Hizkuntzaren erabilera** (gramatika, ortografia eta lexikoa) eta **Literatura-hezkuntza** (jakingaiak eta testuak). Bestalde, **Egiten Jakin** izeneko atalak txertatu ditugu (lau unitateko), prozedurazko edukiei dagokien tokia emate alde.


**Unitate bakoitzaren** atariko orrialdeetan gai interesgarri bat aurkeztuko zaigu, oso era erakargarrian, ikasleak motibatzen helburuarekin. Orrialde horietako behealdean **lau hizkuntza-trebetasunak** lantzen hasteko proposamenak daude, lauki banatan. Gainera, eskuineko orrialdean, gai orokorraren **azpigai bat** lantzen da beti, **Euskal Herriarekin** loturikoa.

## 1. programa. **Komunikazioa** (idatzizkoa eta ahozkoa)




**Irakurtzeko gaitasuna** lantzeko testua.

**Entzuteko testua** atalean entzundakoaren ulermena lantzen da, gaurkotasan handiko gaien bitartez.



Testu moten bereizketa, azterketa eta ekoizpena **Egiten jakin**.



Laukitxo hauetan lau hizkuntza-trebetasunak lantzeko proposamenak daude: **Mintzamena**, **Entzundakoaren ulermena**, **Irakurmena** eta **Idazmena**.



Testu pragmatiko laburrak **Egiten jakin**.

Hainbat egoera komunikatibo erreali aurre **Egiten jakin**.

## ONARRIZKO GAITASUNAK

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren araberrako oinarritzko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzean zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

### ARLOKO GAITASUNAK

**Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna**

**Matematikarako gaitasuna**

**Zientziarako gaitasuna**

**Teknologiarako gaitasuna**

**Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna**

**Arterako gaitasuna**

**Mugimendurako gaitasuna**

### ZE HAR-GAITASUNAK

**Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna**

**Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna**


**Elkarbizitzarako gaitasuna**

**Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna**

**Izaten ikasteko gaitasuna**

## 2. programa. Hizkuntzaren erabilera (gramatika, ortografia eta lexikoa)

Hizkuntzaren erabilaren atalean **Gramatika**, **Ortografia** eta **Lexikoa** lantzen dira. Alde teorikoak eta jarduerak praktikoak osatzen dute lan-saio bakoitza.




**Gramatikak** bina orrialdeko bi saio ditu unitateko. Gramatika osoa da, hizkuntzaren osagai guzti-guztiak lantzen dituena, baina aldi berean oso praktikoak.


**Lexikoa** atalak hiztegia aberasteko bideak eskaintzen ditu. **Ortografiak** atalean, berriz, zuzen idazteko arauak azaltzen dira. Bi-bietan daude ariketak.

## 3. programa. Literatura-hezkunza (jakingaiak eta testuak)

**Langaia** Testua abiapuntu, azalpen argiak (kontzeptu giltzarriak nabarmenduta) eta amaiera praktikoa. Langaiei laguntzeko, eskemak, irudiak eta datu jakingarriak.




**Testuak** Eduki teorikoak testuan bertan lantzeko azpiatala Ulermen literarioa garatzen laguntzeaz gain, ikasitakoaren barneratze-maila egiaztatzeko balio du.



**Egiten jakin** atalean sormen eta ezagutza literarioarekin lotutako jarduerak daude, beti ere landutakoaren erreferentzian.

Unitate bakoitzaren amaieran, landutako **Idea nagusiak** daude laburbilduta. Hurrengo bi orrialdeetan **Amaierako jarduerak** proposatzen ditugu, unitateko langai guztien berrikusketa egiteko. Hemen hiru programetako atal guztiak berrikusten dira. Amaitzeko, testu-tipologian landutako testu motaren berrikusketa praktikoa egiten da.



# 1

## Itsaspeko altxorra

### Euskara

#### JAKIN

- Izen-sintagmaren erabilera: adjektiboa
- Joera-atzizkiak
- Bat eta batzuk*

#### EGITEN JAKIN

- Aurkezpen-bideo bat egitea
- Norberaren fitxa egitea
- Gertakari historikoa idaztea

### Literatura

#### JAKIN

- Lore Jokoak

#### EGITEN JAKIN

- Egilearen asmoa ulertzea



### MINTZATU

- Entzun al duzu inoiz urak irentsitako herri edo hiriren baten berri? Kontatu dakizuna.
- Goiko irudiei begira, zer zibilizazio datorkizu gogora?
- Uste al duzu oraindik ere altxor garrantzitsuak daudela itsaspean?



### ENTZUN



#### Entzun Heraklion testua eta erantzun:

- Non zegoen kokaturik Heraklion hiria?
- Nola irentsi zuen urak hiri hura?
- Noiz eta nola egin zituzten aurkikuntzak?

Hau da hau!

## San Joan ontzia: antzinako euskal arrantzaleen lekukoa



1565ean ekaitz batek hondora bota zuen Pasaiaiko San Joan itsasontzia Kanadako Red Bay-n. 1978an arkeologo urpekari batzuek bertan topatu zuten 10 metroko sakoneran.

Aurkikuntza garrantzitsu horri esker, XVI. mendeko euskal ontzigintzaren inguruko informazio handia lortu dugu.



### ALBAOLA eta BEOTHUK

Albaola Euskal Itsas Faktoria Gipuzkoako Pasaian dago eta bertan San Joan baleontzi zaharraren erreplika egiten dihardute. Baleontzi hartan 6 txalupa zihosen, eta haietariko baten erreplika ere egin dute, Beothuk izenaz bataiatu dutena. Txalupa horretan Jon Maia bertsolariak eta beste zenbait lagunek 2006an espedizio bat egin zuten Red Bay inguruko uretan, antzinako euskaldunek egin omen zuten eran.



# SONARRA



### IRAKURRI

- Zer dakizu San Joan itsasontziaz?
- Zergatik izan zen garrantzitsua haren aurkikuntza?
- Zer da Albaola, non dago eta zertan ari dira?
- Zer da Beothuk eta zer lotura du Jon Maia bertsolariarekin?



### IDATZI

Bilatu informazioa sonarrari buruz eta idatzi fitxa eran:

- Zer da sonarra? Noiz eta nola asmatu zen?
- Zer gertakari historikotan izan zuen garrantzi handia?
- Gaur egun zertarako erabil daiteke sonarra?

## Itsas handian


Itsasoan ez da musikaren beharrik, esan dezake poetak; izan ere, olatuek itsasontziaren koskoaren kontra egiten duten soinu konpasatua nahiko musikala baita, eta egia izan dezake soinuaren purista horrek, baina agian ez du jakingo, itsasoko olatu konpasatuekin batera, itsas handian, lehenago irrati piratak jaio zirela. Nahiz eta, egia esan, pirata izenarekin non sortuko ziren, bada! Eta itsasontzi batean bezalako leku exotiko batean kokatuta egoteaz gainera, musika-irratsaio formula arrakastatsua ere asmatu zuten, lehenengo aldiz musikan oinarritutako irrati-saioak egiten hasi baitziren nazioarteko uretatik.

Kaliforniako kostaldean ainguratutako itsasontzi batek ireki zuen bidea 1930ean, eta horrek jarraipena izan zuen Danimarka eta Suediako kostaldean, 50eko eta 60ko hamarkadetan. Geroxeago, 1964an hain zuzen, Ingalaterratik gertuko uretan sortu zen irrati hauetan guztietan ospetsuena, Radio Caroline. Irrati hori ohartu zuen musika jarritz soilik entzule mordo ederra lor zitekeela, eta horrexek eman zion arrakastaren gakoa. Ordura arte musika-irratsaioak ez ziren existitzen, ez 60ko hamarkadatik gora ezagutzen ditugunen modukoak, hots, dj aurkezleek jarritako musika, eta horrek irratiia ulertzeko eta musika kontsumitzeko beste modu erabat desberdina ekarri zuen.

Radio Caroline sortu eta segidan, txanpinoien modura, beste hainbat irrati pirata hasi ziren emititzen nazioarteko uretatik. Garai haietan, Ingalaterran BBCk zeukan irratiirako monopolioa eta ez zegoen beste irratiirik. Monopolioa desagiteko modu bakarra, nazioarteko uretatik emititzea zen, Ingalaterrako mugen barruan legez kanpoko baitzen.

Hasierako eklosio pirata horrek ez zuen gehiegi kezkatu Britaniar inperioa, baina denborarekin lortu zuten arrakastak eta, nola ez, independentziak izututa, pirata berri horien bidea mozteko irtenbideak bilatzen hasi ziren. Izan ere, badakizue, botereak kontrolatzen ez duena gogaikarri bilakatzen da, eta politikariak berehala hasiko dira legeak propio egiten arazoarekin bukatzeko eta, hainbeste gustatzen zaien legalitatea onik eta itxuroso mantentzeko.

Halaxe gertatu zen orduan ere, *Marine Broadcasting Offences Act* izeneko onartu baitzuen Ingalaterrako gobernuak 1967an, zeinaren bidez debekatzen baitzen Ingalaterrako mugetatik kanpoko irratiak hornitu edo haietan publizitatea jartzea. Legea martxan jarri eta gutxira, Radio Carolinerekin batera jaio ziren hainbat eta hainbat itsaso-irrati pirata desagertu ziren, mantentzen zituena publizitatearen iturria itxi egin zenean.



radio  
Caroline

Gurean ere 80ko hamarkadan ugari izan ziren irrati piratak, eta haiekin gertatutako istiluak ere beste hamaika, itsasoan barik, lehorrean, baina espiritu berari eutsiz. Haietatik gutxi batzuk baino mantentzen ez badira ere, ezinbesteko lezioa ematen digute komunikabideak ezin direla monopolioa izan, edo bote-retsuen esku utzi. Komunikabide demokratikoak eta parte-hartzaileak behar ditugula espiritu kritikoa sustatzeko eta sozialki osasuntsuak izateko.

Musika izan zen finean, mugimendu horren motorra, iraultza txiki hori ahalbidetu zuena. Musika, itsasoaren moduan, irmoa ematen duenaren zutabeak berregitera behartzen baitu, aldian-aldian.

TXUMA MURUGARREN  
*Berria egunkaria*



## Testua aztertzen

### Informazioa jaso

- 1 Zein da testuaren gaia? Aukeratu.
  - a) Itsaslapurrek, hau da, piratek historian zehar izan duten bilakera azalzen da testuan.
  - b) Musikak historian zehar, irratiaren izan duen trataera azaltzen da testuan.
  - c) Irrati piratak zergatik eta nola sortu ziren azaltzen da testuan.
- 2 Erantzun galdera hauei.
  - Zer dela-eta hartu zuten irrati haiek pirata izena?
  - Zergatik emititzen zuten nazioarteko uretatik?
  - Nola desagerrarazi zituzten irrati piratak?
  - Testuaren egilearen iritzia, zer-nolako lezioa ematen digute irrati piratek?
- 3 Adierazi baieztapen hauek egia ala gezurra diren.
  - Lehen irrati piratak Europa iparraldean sortu ziren 60ko hamarkadan.
  - Radio Carolie irrati piratak asmatu zuen musika-irratsaioaren formula arrakastatsua.
  - 60ko hamarkadaren hasieran, Ingalaterran bizpahiru irrati baino ez zeuden.
  - *Marine Broadcasting Offences Act* izeneko legeak irrati piratetan iragarkiak jartzea debekatzen zuen.
  - Gurean irrati piratek antzeko ezaugarriak izan zituzten, baina lehorretik emititzen zutenek, ez zen haiekin inolako arazorik gertatu.

### Testua interpretatu

- 4 Zer adierazten du testuko azken esaldiak? Azaldu zeure hitzak erabiliz.

### Testuaren egitura


- ★ 5 Testuko zein paragrafotan azaltzen da egilearen iritzia? Horren arabera, zenbat ataletan banatuko zenuke testua? Zer azaltzen da bakoitzean?
- 6 Berria egunkariko zein ataletan argitaratu zen testua, zure ustez? Argudiatu.
  - *Euskal Herria* albistegian.
  - *Iritzia* atalean.
  - Elkarriketaren atalean.
  - Agendaren atalean.

### Hizkuntza-baliabideak

- 7 Zeri deritzogu *monopolio*? Idatzi hitzaren definizioa, era zehatz eta argian.
- 8 Zer adierazten du *propio* adberbioak testuko esaldi honetan? Berridatzi esaldia zure hitzak erabiliz.  
*Politikariak berehala hasiko dira legeak propio egiten arazoarekin bukatzeko.*

### Hausnartu eta azaldu

- 9 Ba al duzu irratiaren entzuteko ohiturarik? Zer-nolako irratsaioak entzuten dituzu?
- ★ 10 Zein dira irratiaren indarguneak eta ahulguneak? Azaldu.



## Izen-sintagma: adjektiboa

### 1 Zer da adjektiboa?

Adjektiboa izen-sintagmaren osagaietako bat da. Izenari buruzko informazioa ematen digu eta haren aurrean zein atzean azal daiteke.

Adjektiboak bi motatakoak izan daitezke: IZENONDOAK eta IZENLAGUNAK.

### 2 Izenondoaren erabilera

Izenondoak izenaren atzean erabili ohi ditugun adjektiboak dira.

Izen sintagmetan, izena mugagabea ageri da, eta izenondoa izango da determinatzailea eramango duena.

Mota honetakoak dira *handi*, *txiki*, *gazte*, *luze* eta antzekoak.

► Sutondoan bero handia egiten du.

Baserri horretan txakur zaunkariak daude.

Hala ere, salbuespen gisa, *-dun* edo *-tar* atzizkia duten hitzak ezkerretara ere ager daitezke.

► Bizardun gizon hori nire osaba da.

Bestalde, izenondo bat baino gehiago erabil dezakegu bata bestearen atzetik. Zentzu horretan, ohikoa da izenondo-bikoteen erabilera (*zuri-gorri*, *gazi-gozo*).

► Athleticen kamiseta zuri-gorria da.

Ontzi zuri polit bat uraren gainean dago.

### Kategoria aldaketak

Euskarazko zenbait hitzek kategoria gramatikalez (*izena*, *izenondoa*, *aditza*...) aldatzeko erraztasuna dute. Horrela, izen bat izenondo gisa erabil dezakegu, eta alderantziz.

Hona hemen zenbait adibide:

- Izena izenondo gisa erabiltzen dugunean:

► Nire laguna oso langilea da, baina asto samarra.

- Izenondoa izen gisa:

► Arropa hau zaharrek zein gazteek janzteko modukoa da.

- Izenondoa aditzondo gisa:

► Garbi hitz egin dudala uste dut.

- Aditza izenondo gisa:

► Asier, nahiko itxia da; Amaia, berriz, oso irekia.



## Izenondo graduatzaileak

Izenondoak izen baten nolakotasuna erakusten digu. Ezaugarri horren maila adierazi nahi dugunean, graduatzailea (*oso, nahiko, zeharo...*) behar dugu. Bi motatakoak dira: ASKATUAK edo ATXIKIAK.

- Graduatzaille askatuak hitz aske gisa ageri dira: *oso, nahiko, batere, de-zente, samar, guztiz, erabat, zeharo, lar, izugarri, biziki...*

► *Oso etxe polita duzu, baina txiki samarra da.*

- Graduatzaille atxikiak izenondoari lotuta doaz. Hiru dira: *-en, -ago eta -egi*. *-en* atzizkiak izenondo baten maila gorena adierazten digu:

► *Everest munduko mendirik garaiena da.*

*-ago* atzizkia konparazioak egiteko erabiltzen dugu:

► *Erbia dortoka baino azkarragoa omen zen.*

*-egi* atzizkiak gehiegitasuna adierazten du:

► *Salda hau beroegi dago!*

## BERA eta BERDIN izenondoak

BERA eta BERDIN izenondoek esanahi desberdina daukate, sarritan nahasteko joera izan ohi dugun arren.

- *Berdin* izenondoa antzekotasun handia duten bi elementu edo gehiagorekin erabiliko dugu:

► *Biki horiek berdin-berdinak dira.*

- *Bera* izenondoa, aldiz, pertsona edo objektu bakarra adierazteko erabiliko dugu.

► *Zure izeba eta zure amaren ahizpa pertsona bera dira.*

## JAKIZU



Izenondoak eta aditzondoak errepikatuz haien maila edo intentsitatea hainditzeko dugu graduatzailearen beharrik gabe.

- Zurea urdin-urdin dago.  
(Zurea oso urdin dago)

## ARIKETAK

## 1 Osatu perpausak izenondo-bikote egokia aukeratuta.

- Gusatzen al zaizu saltsa \_\_\_\_ ?
- Pintto txakurra \_\_\_\_ da.
- Errealaren kamiseta \_\_\_\_ da.
- Mirenen laguna \_\_\_\_ da.

gor-mutua  
gazi-gozoa  
zuri-beltza  
zuri-urdina

## 2 Bete hutsuneak izenondoak egoki erabiliz.

- Katuak oso garbiak dira, baina Xapi orain \_\_\_\_ dago.
- Zure salda hotz dago, baina hau oso \_\_\_\_ dago.
- Ez bota gatzik, dagoeneko \_\_\_\_ dago-eta!
- Itxaron beharra dugu, semaforoa \_\_\_\_ dago.

## 3 Azpimarratu testuko graduatzaileak.


Oso ilun zegoen dena eta zeharo nekatuta geunden. Bidea estu samarra bazen ere, guztiz ziur geunden: irteerak nahiko hurbil egon behar zuen. Errekastoari jarraitu genion. Bat-batean, argi arras txiki bat bereizi genuen urrunean. Biziki poztu ginen hura ikustean.

## 4 Aukeratu hitz egokia graduatzaileari erreparatuta.

- Balea munduko animaliarik \_\_\_\_ da.  
a) handiena b) handiagoa c) handiegia
- Ur \_\_\_\_ edatea ez da ona eztarriarentzat.  
a) hotzagoa b) hotzena c) hotzegia
- Anboto mendia Oiz baino \_\_\_\_ da.  
a) garaiagoa b) garaiena c) garaiegia
- Belatz handia da hegaztirik \_\_\_\_.  
a) azkarragoa b) azkarregia c) azkarrena

## 5 Aukeratu bera ala berdin perpausak osatzeko.

- Jantzita daukazu jertse *bera/berdina* erosi nuen atzo.
- Ainara eta biok bagoi *berean/berdinean* etorri gara.
- Zumetak erabili zuen pintzel *bera/berdina* da hau.
- Guk auto *berdina/bera* dugu, baina nirea berria da.
- Aitak eta amak bide *berdinetik/beretik* etortzen dira etxera.



## Izen-sintagma: izenlagunak

### 1 Izenlagunaren erabilera

Izenlagunak, izenondoak ez bezala, izenaren aurrean ageri dira eta *Noren?* eta *Nongo?* galderei erantzuten diete *-ren* eta *-ko* kasu-markak hartuz.

► Gure herria.

Herriko plaza.

Izenlagunaren ondoren, izen bat doa beti. Izen horrek, era berean, *NOREN* edo *NONGO* kasua har dezake; horrela, nahi beste izenlagun pilatu ahal ditugu bata bestearen ondoan.

► Aldapeko sagarraren adarraren puntan.

### 2 -(R)EN atzizkidun izenlagunak

*Noren* kasuaren *-(r)en* atzizkia hartuz eratzen ditugun izenlagunek jabetza eta beste zenbait harreman mota adierazten dute:

► Edurneren bizikleta Xabierren etxean dago.

(*Edurnek duen bizikleta Xabierrena den etxean dago*)

Ainhoaren astoa Sararen zaldia baino txikiagoa da.

Izenordainekin (*ni, zu, hura...*) *-re* atzizkia erabiliko dugu, ez *-(r)en*.

► Nire aitak zure osaba ezagutzen du.

### 3 -KO atzizkidun izenlagunak

*Nongo* (edo *Noizko*) kasuaren bidez eratu ohi dira izenlagun hauek.

► Lagako hondartza Bizkaiko golkoan dago.

Gaurko egunkarian asteburuko uholdeak agertzen dira.

Sarritan, gauzen nolakotasuna adierazteko erabiltzen ditugu; hartara, *Nolako?* galderari erantzuten diote.

► Bihotz handiko laguna zara.

Oro har, mota guztietako hitzekin eratu ahal ditugu izenlagunak:

#### • Izena + *-ko*:

► *Nire* etxe**ko** leihoa zabalik dago.

Herrieta**ko** jaiak oso dibertigarriak izaten dira.

#### • Izenondoa + *-ko*:

► Hor adin handi**ko** pertsonak ibiltzen dira pasean.

#### • Aditzondoa + *-ko*:

► Egund**ko** ekaitzak astindu du herria.



- **Aditza + -ko:**
  - Zuk idatzitako bertsoak abestu ditut.
- **Zenbatzailea + -ko:**
  - Hiruko taldeetan egingo dugu ikerlana.
  - Leku askotako jendeak egiten du Done Jakue bidea.
- **Deklinabide-kasuak + -ko:**
  - nora+ko, zerez+ko, norekin+ko, norentzat+ko...
  - Bilborako trenan laster helduko da.
  - Txokolatezko izozkia jango dugu.
  - Naturarekiko errespetua izan behar dugu.
  - Postariak zuretzako gutuna eman dit.
- **Postposizioak + -ko:**
  - alde+ko, buruz+ko, ondo+ko, inguru+ko...
  - Euskararen aldeko jaia antolatu dugu.
  - Robotei buruzko filma ikusi dugu.
  - Iturri ondoko txoria birigarroa da.
  - Bi aste inguruko bidaia egingo dugu.

#### JAKIZU



#### Hitz elkartuak

Hitz-elkarketan izenlagunen -(r)en eta -ko atzizkiak ezkutatuta egon ohi dira.

- Antxoa-eguna (antxo**aren** eguna)
- Etxe-katua (etxe**ko** katua)

#### ARIKETAK

##### 1 Lotu zatiak esaldiak osatzeko:

- |                    |                               |
|--------------------|-------------------------------|
| Gaurko egunkariko  | • enborrak oso mardulak dira. |
| Pagadiko zuhaitzen | • ohea egin gabe utzi dut.    |
| lazko ikasturteko  | • berriak irakurri dituzu?    |
| Errekako uraren    | • argazkiak inprimatu ditugu. |
| Nire gelako        | • kolorea ilun samarra da.    |

##### 2 Bete hutsuneak izenlagun egokia aukeratuta.

- Nire \_\_\_\_ ilea oso luzea da.  
a) buruaren    b) buruko    c) buruan
- \_\_\_\_ azazkalak moztu behar dituzu.  
a) Atzamarreko    b) Atzamarren    c) Atzamarretako
- Gure \_\_\_\_ mahaia egurrezkoa da.  
a) sukaldearen    b) sukaldeko    c) sukalderen
- Auto \_\_\_\_ kolorea beltza da.  
a) berriko    b) berri    c) berriaren
- Elefante \_\_\_\_ belarriak handiak dira.  
a) afrikarraren    b) Afrikako    c) afrikarreko

##### 3 Ordenatu hitzak perpausak osatzeko.

- *Nire/herriko/aitaren* alkateak pregoia irakurri du.
- *leihoaren/etxeko/Gure* kristala apurtu egin da.

- *amaren/lehengusuaren/Nire* ahizpa nire ama da.
- *osabaren/aitaren/Zure* biloba nire lehengusua da.
- *ezkaten/arrainen/Itsasoko* kolorea urdina da.

##### 4 Azaldu perpaus bikote hauen esanahia eta haien arteko ezberdintasuna.

- Mahaiaren faktura hori aspaldikoa da.
- Mahaiko faktura hori aspaldikoa da.
- Eskolako marrazkiak nork egin ditu?
- Eskolaren marrazkiak nork egin ditu?
- Autoaren gurpil hori zulatuta dago.
- Autoko gurpil hori zulatuta dago.

##### 5 Osatu perpausak izenlagun egokia aukeratuta.

|              |              |         |
|--------------|--------------|---------|
| etxeko       | beharreko    | buruzko |
| bizikletaren | kirolarekiko |         |

- Arraunlari horrek \_\_\_\_ zaletasun handia du.
- Ez dakit non utzi ditudan nire \_\_\_\_ giltzak.
- Zure \_\_\_\_ gurpilak mendian ibiltzekoak dira.
- Oihaneko animaliei \_\_\_\_ dokumentala ikusi dugu.
- Goazen kalera, egin \_\_\_\_ ariketak bukatu ditugu eta.

## ➔ EGITEN JAKIN

## ★ Aurkezpen-bideo bat egitea



Ondo ezagutzen al duzu zeure burua? Nor zara? Nolakoa zara? Zer egitea gustatzen zaizu? Argi al duzu etorkizunean zer egin nahi duzun?

Demagun zure ikastetxeak eta beste herri bateko ikastetxe batek ikasle-trukaketa programa bat egin nahi dutela. Horretarako ikastetxe bakoitzak beste ikastetxeko ikasleak ezagutu nahi ditu. Zuen egitekoa izango da zeuen buruaren aurkezpena bideoz egitea. Horretarako, zuen berri eman beharko duzue atalka, hartzaileek nor zareten jakin dezaten.

**1** Aukeratu. Zer informazio mota ez duzu eman behar aurkezpen-bideoan?

- ☐ Nire asmoei buruzkoa.
- ☐ Nire zaletasunei buruzkoa.
- ☐ Nire intimitatearekin zerikusia duena.

**2** Bete beheko laukietan ageri diren hutsuneak esaldi hauekin.

- Zer egiten dudan aisialdian.
- Nire adina.
- Etorkizunean zer egin nahi dudan.
- Nire izaeraren alderdi onak.
- Zer ikasten ari naizen.



**NOR NAIZ?**

- Nire izen-abizenak.
- \_\_\_\_\_
- Bizi naizen herria.
- \_\_\_\_\_
- Bestelako ekintzak.



**ZER GUSTATZEN ZAIT?**

- Zaletasunak ikastetxean eta ikastetxetik kanpo.
- \_\_\_\_\_
- Oraindik egin gabe dudana eta egitea gustatuko litzaidakeena.



**NOLAKOA NAIZ?**

- Nire izaera nolakoa den.
- \_\_\_\_\_
- Nire lan egiteko modua.



**ZER NAHI DUT?**

- \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_
- Etorkizunean zer egin nahi dudan nire inguruarentzat.

**3** Grabatu bideoz zeure buruaren aurkezpena.

- Lehenik, idatzi aurkezpenaren gidoia, goiko atalak kontuan hartuz.
- Ikasi ondo gidoia. Ez da nahitaezkoa buruz ikastea, baina ondo jakin beharrekoa bai, aurkezpen ona egiteko.
- Ahal dela, grabatu atal bakoitza beste horrenbeste tokitan. Aukeratu toki esanguratsuak, ahal dela, esaten duzunarekin zerikusia dutenak.
- Saiatu zu zaren bezalakoa agertzen, ez alaiegi ez goibelegi, aurkezpena naturala izan dadin.

## ENTZUTEKO TESTUA

### Komiko bat danborradan

Ezaguna da bideo biralek sare sozialetan duten eragina. Inork ere ez daki zerk egiten duen halako bideo bat arrakastatsu, erabiltzaile baten telefono edo ordenagailu batetik beste baten gailura etengabe saltoka joateko.

Horixe gertatu zen Donostiako Danborradan grabatutako bideo batekin. Artxibo labur hartan, gautxori bat dantzan hasi zen konpainia baten aurrean eta haien haserrearekin piztu zuen. Baina gautxoriak sorpresa bat zeukan...




- ★ 1 Entzun *Komiko bat danborradan* testua eta erantzun galderei.
  - Zer gertatu zen Fermin Kalbeton kalean?
  - Non piztu zen gertatutakoari buruzko eztabaida? Zenbatek ikusi zuten bideoa?
  - Nor da Franky Fryer? Zer egitera etorri zen Donostiara?
- 2 Adierazi ea argudio hauek nola edo hala testuan azaltzen diren.
  - Tradizioak errespetatu egin behar dira eta ezin ditu inork zapuztu.
  - Jai batean umore handiagoz jokatu behar da.
  - Lan egiten ari denari lan egiten utzi behar zaio.
  - Ezetz ausartu komikoa bere herriko goardiaren aurrean gauza bera egitera.
- ★ 3 Zer deritzozu Franky Fryerren jokabideari? Eta konpainiaren kapitainaren erantzunari? Bilatu aldeko eta aurkako argudioak bai batarentzat bai bestearentzat.



### Entzun ahala

- Idatzi, entzun ahala, ideia interesgarrienak.
- Jarri arreta jendeak ematen dituen iritzietan.
- Mantendu arreta bukaerara arte.

## EGITEN JAKIN



### NORBERAREN FITXA

Deskribatu zeure burua hitz gutxitan.

- ★ 1 Baliatu aurreko orriko jarduera zeure buruaren fitxa egiteko. Horretarako, kontuan izan puntu hauek:
  - Soilik behar-beharrezko informazioa erabili.
  - Sailkatu informazioa atalka: izen-abizenak, jatorria, ikasketak, zaletasunak, biografia laburra...
  - Itsatsi argazki bat fitxan.
- 2 Egin horma-irudi bat fitxa guztiekin.

## Joera-atzizkiak



### 1 -bera, -kor, -koi eta -zale atzizkak

Atzizki hauen bidez izenondoak sortzen ditugu, pertsonak, animaliak zein gauzak deskribatzeko. Joera (*bihozbera*, *aldakor*, *lagunkoi*...) edo zaletasuna (*kirolzale*, *etxe**koi*...) adierazten dute.



| JOERA-ATZIZKIAK                                                                                                                                                                                                                             | ADIBIDEAK                                                                                                                       |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| -bera: joera adierazten du (maiz gaixotu ohi dena → <i>gaixobera</i> ). Aditzaierari erantzen zaio ( <i>gaixo(tu)</i> ...), baina zenbait izenek ere hartzen dute ( <i>bihotz</i> → <i>bihotzbera</i> : <i>bihotz samurreko pertsona</i> ). | <i>senti(tu)</i> + -bera: <i>sentibera</i> ,<br><i>hotz</i> + -bera: <i>hozbera</i><br><i>egarri</i> + -bera: <i>egarbera</i>   |
| -kor/-or: joera adierazten du. Aditzaierari erantzen zaio (egonkor, sentikor...). Aditz batzuek -or hartzen dute. Beste zenbait hitzek ere hartzen dute: <i>baikor</i> , <i>berankor</i> ...                                                | <i>apur(tu)</i> + -kor: <i>apurkor</i> ,<br><i>eman</i> + -kor: <i>emankor</i><br>ez + -kor: <i>ezkor</i>                       |
| -koi: joera edo zaletasuna adierazi ahal du. Izenei lotu ohi zaie ( <i>etxe</i> <i>koi</i> , <i>amako</i> i...), baina izenlagunekin ( <i>bere</i> <i>koi</i> ) eta adizlagunekin ere erabili daiteke ( <i>aurrerako</i> i).                | <i>eliz</i> + -koi: <i>elizkoi</i> ,<br><i>herri</i> + -koi: <i>herrikoi</i><br><i>barnera</i> + -koi: <i>barnerakoi</i>        |
| -zale/-tzale: zaletasuna adierazten du eta izenekin erabili ohi da. Hala ere, badira salbuespenak: <i>ederzale</i> , <i>ilunzale</i> . N, R eta L letraz bukatzen diren hitzei erantzen -tzale forma hartu ahal du.                         | <i>musika</i> + -zale: <i>musikazale</i> ,<br><i>diru</i> + -zale: <i>diruzale</i><br><i>euskal</i> + -zale: <i>euskaltzale</i> |

## ARIKETAK

### 1 Osatu definizioak hitz hauekin:

izerbera

berekoa

euskaltzalea

kutsakorra

- Asko izenditzen duen pertsona: \_\_\_\_\_
- Euskararen aldeko jarrera duena: \_\_\_\_\_
- Kutsatu daitekeen gaixotasuna: \_\_\_\_\_
- Batere eskuzabala ez den pertsona: \_\_\_\_\_

### 2 Sortu hitzak -kor edo -zale atzizkiak erantziz.

- pentsa(tu) → \_\_\_\_\_
- bake → \_\_\_\_\_
- mendi → \_\_\_\_\_
- labain(du) → \_\_\_\_\_
- fida(tu) → \_\_\_\_\_
- zinema → \_\_\_\_\_
- joko → \_\_\_\_\_
- eman → \_\_\_\_\_

### 3 Osatu esaldiak -bera atzizkia eta parentesi arteko hitzak erabiliz:

- Ana erraz maitemintzen da; oso \_\_\_\_\_ a da. (*maita(tu)*)
- Luzaroan ibili gara eta oinak \_\_\_\_\_ ditut. (*min*)
- Umeek dena ikusi nahi dute; \_\_\_\_\_ (*ikus(i)*) dira.
- Oierrek beti du irribarrea ezpainetan, \_\_\_\_\_ da (*irri*)
- Hotzak hilik dago Mikel, hain da \_\_\_\_\_ (*hotz*)!

### 4 Eman hitz hauen antonimoak -koi atzizkia erabiliz:

- atzerakoia → \_\_\_\_\_
- kanporakoia → \_\_\_\_\_
- kalezalea → \_\_\_\_\_
- eskuzabala → \_\_\_\_\_

### 5 Aukeratu hitz zuzena esaldi bakoitza osatzeko.

- Tarta osoa jan duzu! Zu bai *sabelkoia/elizkoia*!
- Txinako loreontziak *hauskorrak/hausiorrak* dira.
- Eta zu, ez al zara *musikazalea/musikabera*?
- Sentibera/Sinesbera* da Oier; hunkitu da agurtzean.

### 6 Osatu testua hitz hauekin.

mendizalea fidakorra lagunkoia kalezalea

#### Aitona Ximon

Egunero goizean goiz irteten da mendira joateko; \_\_\_\_\_ da Ximon. Perretxikozalea ere bada. Berak batzen dituen perretxikoak baino ez ditu jaten, ez da batere \_\_\_\_\_-eta. Arratsaldean ere kalera irteten da lagunekin; hain da \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_!

## Bat eta batzuk

### 1 Bat eta batzuk zenbakiak nola deklinatu

Bat zenbakiak deklinatzerakoan, arau hauek izango ditugu kontuan:



| BAT ETA BATZUK DEKLINATZEKO ARAUAK                                                             | ADIBIDEAK                                                                                               |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Bat zenbakiak mugagabearen markak hartzen ditu, oro har.                                       | <i>batek, bati, batekin, baten, batentzat...</i>                                                        |
| Beste hitza ondoan duenean, ordea, bat-ek deklinabide mugatua hartzen du.                      | <i>Bata ona da; bestea hobe! Batari zein besteari esan, berdin da.</i>                                  |
| Leku-denborazko kasuetan ere, bat mugatu moduan deklinatzen da beti.                           | <i>batera, batetik, batean...</i><br>eta ez: <i>*batetan, *batetik, *batetara...</i>                    |
| Batzuk zenbatzailea bat zenbakiaren plurala dugu.                                              | <i>Lagun batzuk etorri dira, eta ez: *Lagun batzu.</i>                                                  |
| Kasu gehienetan, pluraleko deklinabide mugatu arrunta hartu ohi du. Nor kasuan salbuespena da. | <i>batzuek, batzuei, batzuekin, eta ez *batzuri, *batzugin...</i><br><i>Gazte batzuk... ez *batzuak</i> |

### JAKIZU



Bat artikulua gisa erabiltzea gehiegi hedatu da. Erdarazko esapideak itzultzetik dator akats hori, baina euskarak badu berezko tresnarik:

- *\*Hotz bat daukat! → Hau da hotza!*
- *\*Astokilo bat zara! → Astokilo hutsa zara!*

### ARIKETAK

#### 1 Osatu esaldiak zenbaki hauek erabiliz.

bata batzuetan batek batzuk

- Bi domina lortu ditu. \_\_\_\_\_, urrea; bestea, zilarra.
- Atzo onddo zuri \_\_\_\_\_ jaso genituen basoan.
- \_\_\_\_\_, txoria naizela amesten dut.
- Baten \_\_\_\_\_ liburua autobusean ahaztu du.

#### 2 Hautatu forma egokia kasu bakoitzean.

- Bi txakur ditut, \_\_\_\_\_ Kai eta besteari Lur jarri diet.  
a) bati b) batari c) bateri
- Atzoko kontu \_\_\_\_\_ ari ginen agertu zarenean.  
a) batzuz b) batzuetaz c) batzuez
- Italia ala Frantzia: \_\_\_\_\_ ala besteko jakiak dituzu gogoko?  
a) bateko b) batetako c) batak

#### 3 Osatu perpausak deklinabide-marka egokiak jarritz:

- Jai berezi hori herri bakar bat \_\_\_\_\_ ospatzen da.
- Oholtza langile batzu \_\_\_\_\_ artean muntatuko dute.
- Nafarroako lagun batzu \_\_\_\_\_ bisitan etorri zaizkigu.
- Bizkaiko herri bat \_\_\_\_\_ etorri dira parte hatzaileak.

#### 4 Erantzun galderei irudietako pertsonaiak konparatzeko.

- Nolakoak dira bata eta bestea?  
Adibidez: *Bata azkarra da; bestea, berriz, bihurria.*
- Zer dauka bakoitzak? Zer ez?
- Zer gustatzen zaio bakoitzari?
- Nora joango zinateke bakoitzarekini?
- Zer esango zenuke bakoitzaren alde?



#### 5 Osatu testua Bat eta Batzuk era egokian deklinatuta.

##### Bizikletaz itsaslabarretatik!

Batzu \_\_\_\_\_, bizikletan joaten naiz lagun batzu \_\_\_\_\_.  
Bat \_\_\_\_\_ Ane du izena; besteak, Jon. Atzo, itsaslabar batzu \_\_\_\_\_ igaro ginen. Halako bat \_\_\_\_\_, harri \_\_\_\_\_ erori ziren guregana. Bat \_\_\_\_\_ Jonen gupil bat \_\_\_\_\_ jo zuen. Bat-bat \_\_\_\_\_, bizikletatik jauzi egin zuen itsasorantz. Eskerrak beheko zuhaitz bat \_\_\_\_\_ adar batzu \_\_\_\_\_ zintzilik geratu zen! Hurrengo bat \_\_\_\_\_, hondartza bat \_\_\_\_\_ joango gara, olatu \_\_\_\_\_ hartzera!



## Gertakari historikoa

**Historia liburuetan eta entziklopedietan** aurkitu ohi ditugu historiaren garai jakin bateko gertakarien kontakizunak. Kontakizun horietan, unean-uneko gertakariez gain, **testuingurua ere** azaltzen da; hau da, gertakari nagusia ulertzen lagunduko diguten hainbat albo-istorio kontatzen dira. Jakina, **kronologiak** garrantzi handia du testuaren egituran.

Era berean, garrantzi handikoak dira **elementu tipografikoak** (izenburua, azpi-izenburuak...) eta elementu **ikonografikoak** (irudiak, argazkiak, denbora-lerroak); izan ere, horiek ulermena errazten dute.


### Rosetta harria, aurkikuntza bikoitza!



Rosetta harria munduko inskripziorik ezagunena dugu ziurrenik. 1799. urtean Egipton aurkitutako harri horrek hieroglifoak irakurtzea ahalbidetu zuen, hieroglifoen eta alfabetoen arteko baliokidetzak eta desberdintasunak ulertu ondoren.

Rosetta harria granitozko bloke trinko bat da. 750 kilo inguru pisatzen du eta 114 cm-ko altuera, 72 cm-ko zabalera eta 28 cm-ko lodiera du. Bertan hiru idazkera mota daude: grekoa, demotikoa eta hieroglifikoa, eta horrek hieroglifoak deszifratzea ahalbidetu zuen. Egiptoko hieroglifoak guztiz deszifratzea lortu zuena Jean-François Champollion izan zen, eta 1823an eman zuen bere arkikuntzaren berri.

Jo dezagun 2.000 urte denboran atzera, greziarren eta erromatarren garaia, edo 3.000 urte iraun zuen Egiptoko zibilizazioa gainbeheran hasi zen garaia. Erromatarrek, eta greziarrek bereziki, nolabaiteko mespretxuz hartzen zuten antzinako Egiptoko zibilizazioa, *barbaroak* zirelakoan, baina aldi berean begirune handia zioten, haien jakituria eta antzinatasunagatik. Autore klasikoek Egipto jotzen zuten idazkeraren sortzailatzat, baina ez ziren hieroglifoak irakurtzeko gai, letrak erabili beharrean irudiak erabiltzen baitzituzten.



### Rosetta harriaren aurkikuntza. Napoleonen armada Egipton.

1798an Napoleonen armada Egipto inbaditzera abiatu zen. Zorionez, espedizio hark inbasioarekiko adinako interesa izan zuen kulturarekiko. Soldaduekin batera hainbat jakitun frantses abiatu zen, eta Egipton gelditu ziren hiru bat urtez. Artista multzo zabal bat ere bazegoen haiekin batera, Dominique Vivant Denon buru zutela. Denonek *La Description de L'Egypte* argitaratu zuen gero, eta Europa guztia txunditu zuen antzinako Egiptoko tenplu eta eraikin harrigarrien berri emanez. Napoleonen armada zur eta lur gelditu zen ikuskizun miragarri haiek ikustean, eta lekuko batek dioenez, «bertan gelditu, eta bat-bateko barne-indar baten eraginez, bertan behera utzi zituzten armak».



Rosetta harria eskadroi bateko soldaduek aurkitu zuten 1799ko uztailean, Nilo ibaiaren adar batean dagoen Rashid herrixkan, itsasotik kilometro gutxi batzuetara. Rosetta antzinako horma batean omen zen. Soldaduak harriaren garrantziaz konturatuta, Kairora eraman zuten berahala. Orduan kopiak egin eta Europako adituen artean banatu ziren 1800. urtean zehar.

1801ean Alexandriara eraman zuten harria, armada britainiarrak harrapatzea galarazteko. Baina, azkenean, britainiarren esku utzi zuten, horiek Britainia Handira eraman, eta Museo Britainiarrean egon da ikusgai orduz gero.

*gaiak.net*

## Testutik abiatuta



**1** Irakurri gertakari historikoa eta erantzun galderei.

- Zergatik da hain garrantzitsua Rosetta harria?
- Zein idazkera azaltzen dira inskripzioetan?
- Non dago gaur egun Rosetta harria?



**2** Osatu sekuentzia kronologikoa data bakoitzari dagokion gertaerarekin.

| K.o. I. mendea |  |
|----------------|--|
| 1798           |  |
| 1799           |  |
| 1801           |  |
| 1823           |  |

**3** Gertaera historikoen kontaketa kronologikoki egin ohi da. Hala ere, 3. paragrafoan lehenagoko garai bati buruzko datuak tartekatzen dira. Zertarako? Aukeratu.

- ☐ Informazioa osatu edota testuinguruan kokatzeko.
- ☐ Testua apaintzeko, literatur baliabide gisa.

**4** Gertaera historiko bat ondo ulertzeko, garrantzitsua da testuingurua ondo azaltzea; zentzu horretan, esan adierazpen hauek egia ala gezurra diren:

- Gertakari nagusia hobeto azaltzeko, zenbait pasarte asma ditzakegu.
- Albo historioek testuinguruaren ikuspegi zabalagoa eskaintzen digute.
- Testuinguru historikoak kontakizunaren ardatza ulertzen laguntzen du.
- Datu kronologikoak emateak testua apaintzeko baino ez du balio.



**5** Ordenatu kronologikoki hegazkinaren asmakuntzari buruzko adierazpenak.

- ☐ Greziar mitologiako Ikaro eta Dedaloren kondaira.
- ☐ XV. mendean Leonardo da Vincik hegan egiteko hainbat aparatu diseinatu.
- ☐ 1903an Wright anaien lehen hegaldia.
- ☐ X-15 hegazkinak 7.274 km/h.
- ☐ Louis Bleiriot Mantxako itsasartea igarotzen lehena.

## Idazteari ekin



**6** Idatzi hegazkina asmatu zuteneko gertakari historikoa. Horretarako:

- Bilatu informazioa gertakari hori azaltzeko eta aukeratu esanguratsuena.
- Azaldu gaiaren nondik norakoak, aurreko ariketan ordenatu dituzun gertakarien ordena kronologikoari jarraituz.
- Eman hegazkina asmatu zuteneko testuinguru historikoaren berri: zer beste kontu gertatu ziren garai hartan?
- Kontatu gaur egun bidaiatzeko ditugun ohiturak.
- Testua antolatzeko eta apaintzeko, baliabide tipografikoak (azpitoluak...) eta ikonografikoak (irudiak...) erabil ditzakezu.



## Lore Jokoak



### Menditar baten kantua

*Urruti nere menditik  
Joan nintzen dirutu nahirik,  
Urrutietan laster bihotza  
Nahigabez erdibiturik,  
Gelditu nintzen tristerik,  
Bake santua galdurik.*

KARMELO ETXEGARAI

### 1 Lore Jokoen historia

Lore Jokoak oso garrantzitsuak izan ziren XIX. mendeko euskal kulturarentzat, hura **berpizten** lagundu zutelako.

XIX. mendean, Europan, **herri-kulturari buruzko interesa** hedatu zen. Herriak sortutako kultura-adierazpenak aztergai eta estimagarri bihurtu ziren garaiko jende ilustratuarentzat. Euskal Herrian ere piztu zen jakin-min hura. Horren ondorioz, **1853an**, lehen euskal literatura-lehiaketa antolatu zen Lapurdin. Lore Jokoak izena hartu zuten.

Lore Jokoetan sari garrantzitsuak ematen zirenez, parte hartzea handia zen. **Urtean behin** egiten ziren Lore Jokoak eta gaiak aurretiaz zehaztuta zeuden. Irabazleek jendaurrean kantatzen zituzten olerkiak.

Lore Jokoak jai giroan ospatzen ziren eta egun oso bat irauten zuten; pilota partidak, dantzak, musika eta ganadu-feriak ere izan ohi ziren.

### 2 Anton Abadia, Lore Jokoen bultzatzailea

Lehenengo Lore Jokoak Lapurdiko Urruñan egin ziren, 1853an. **Anton Abadia** izan zen sustatzaile nagusia.

Lehenengo Lore Jokoak **Lapurdiko Urruñ**a herrian egin ziren, 1853an. Anton Abadia izan zen sustatzaile nagusia.

Anton Abadia Dublinen, Irlandan, jaio zen 1810ean familia aberats batean, baina hamar urte zituela Lapurdira joan ziren bizitzera. Aita zuberotarra zuen eta euskara irakatsi zion txikitatik.

Abadia pertsonaia famatua izan zen bere garaian; zientzialaria eta esploratzailea izan zen. Hendaiko muino batean jauregi bat eraikiarazi zuen.

Euskal kultura bultzatzeko asmoz antolatu zituen lehen Lore Jokoak.

#### JAKIZU



#### Lorea sari

Lehen Lore Jokoen jatorria Frantziako Tolosan dago. 1324. urtean lehen Lore Jokoak egin zituzten hiri hartan. Okzitaniako olerkariak goratzeko antolatu ziren. Olerkirik onenari urrezko bioleta bat ematen zitzaion. Horregatik deitu zitzairen Lore Jokoak. Gaur egungo kiroltak dominak emateak ohitura hartan du jatorria.

### 3 Lehen Lore Jokoak

Lehenengo edizioiko gaia euskaldunen **emigrazioa** izan zen. Urte haietan, gazte askok Amerikara jotzen zuten lan bila.

Ondoren, Martin Egiategik 1853ko Lore Jokoetarako egindako olerki zatia duzu. Amerikara joateagatik barnean zuen tristuraz ari da, eta nola sentitzen duen faltan gurasoen babesa.

*Lur batetarik salto, / ta bertzera kurri,  
Hemen gabiltza suelto / nigar-egingarri!  
Hain ongi nintakena / nere sorterrian,  
Zer jan-edan nukena / aita-amen aldian!*

Lehen sariketan 37 bertsolarik eta olerkarik eman zuten izena. **Bernard Celhabe** bardoztarrak irabazi zuen, *Entzunik espantutan Indien berria* izeneko olerkiarekin.

Lehen hamar urteetan Urruñan ospatu zen jaialdia, eta ondoren **Saran** egin zen, 1864-1878 bitartean. Ondoren, Hego Euskal Herrian antolatu ziren Lore Jokoekin txandakatu ziren Iparraldekoak.



### 4 Lore Jokoak Hego Euskal Herrian

Euskal Herriko bi aldeetan ekitaldi bera txandaka egiteak euskaldunen arteko **harremanak sendotzea** ekarri zuen.

Hegoaldean ere euskal kultura bultzatzeko asmoz, nafar euskaltzale talde batek Abadiari proposatu zion Nafarroan lehiaketa elkarrekin antolatzeko. Abadiaren baiezkorekin, **Elizondon** egin zen sariketa, **1879an**.

**Felipe Arrese-Beitia** bertsogilearen *Ama euskerari azken agurrak* lana izan zen saritua. Lan horretan, Arrese-Beitiak hiltzorian ikusten du euskara.

Elizondokoaren ondoren, hainbat urtez egin ziren Lore Jokoak.



Felipe Arrese-Beitia

#### ARIKETAK

##### 1 Erantzun galderei.

- Zer hedatu zen Europan xix. mendean?
- Zer ondorio izan zuen horrek Euskal Herrian?
- Zein ziren Lore Jokoen ezaugarriak?
- Zertan lagundu zuten Lore Jokoek?

##### 2 Laburbildu Anton Abadiaren bizitza. Adierazi zer ekarpen egin zion euskarari.

##### 3 Adierazi zer ekarri zuen Lore Jokoak Iparraldearen eta Hegoaldearen artean txandakatzeak.

##### 4 Bilatu Felipe Arrese-Beitiari buruzko informazioa eta idatzi biografia laburra.



##### 5 Osatu 1859ko Lore Jokoetan saritutako bertso hau.

- izarrena • oroitzen • eguna • distiratzen

##### Ama haurraren sehaska lokartzen

Lo! lo! gauak oraindik  
nonbait du \_\_\_\_\_  
ez da nihon argirik  
baizik \_\_\_\_\_.  
Izarrez mintzatzean  
zutaz naiz \_\_\_\_\_,  
zein guti zure alden  
duten \_\_\_\_\_!



JEAN BAPTISTE LARRALDE

## Maria alegiazkoa

Arratsa zen. Negu hasi berrian,  
Maria da kiloa gerrian,  
Bere gelan iruten hari soilik.  
Kantatzen du boz batek kanpotik:


–O! Maria, ene maite bakarra,  
Ager zaite apur bat leihora.  
Zeru goian usu dira izarrak,  
Haizeari joan zaizkio indarrak.

–Haitz adarren erasia bezainbat  
Zure kantaz axola darokat,  
Ezen noa utzirikan leihora  
Itsas zolan arrain bihurtzera.

–O! Maria, zu biziz kanbiatzen,  
Arrainera bazara bihurtzen  
Arrantzale banoa ur handitan,  
Zu bizirik hartzera saretan.

–Arrantzale gaixoa itsasoko  
Zuk sareak hedatu orduko,  
Ni, txoria, hegazti arin, airez  
Larrez larre banoa hegalez.

AGUSTIN ETCHEVERRY



### ARIKETAK

1 Bilatu hitz hauek hiztegian eta azaldu zein den beren esanahia.

- kilo                      • erasi
- usu                        • boz

2 Argitu hirugarren ahapaldiko esaldi hau:

*Haitz adarren erasia bezainbat  
Zure kantaz axola darokat*

3 Azaldu ahapaldi bakoitzaren esanahia zeure hitzez.

4 Bilatu egileari buruzko informazioa.

★ Zein urtetako Lore Jokoetan hartu zuen parte? Zein lanekin, ondokoaz gain?

### ➔ EGITEN JAKIN

#### Egilearen asmoa ulertzea

##### Ama euskeriari azken agurrak

*Neure bihotzeko Amatxo zaharra,  
Antzinako ama Euskera,  
Seme leial bat orain datortzu  
Azken agurra emotera;  
Hainbeste gerra goitu ezinda  
Danori atsotu zara,  
Zaurien zauriz galdu-galduta  
Amatxo zoaz hiltzera!*

1 Felipe Arrese Beitiaren *Ama euskeriari azken agurrak* (1879) olerkiko pasartea da honakoa. Irakurri arretaz eta erantzun galderei:


- Zerk kezkatzen du idazlea?
- Nori buruz ari da «Ama» esaten duenean?
- Zergatik da Ama antzinakoa?



2 Zure ustez, aldatu al da euskararen egoera bertso hori idatzi zenetik? Zergatik?



## GRAMATIKA. ISren erabilera. Adjektiboa: izenondoak eta izenlagunak



Izen-sintagmaren barruan, adjektiboak **izenari buruzko informazioa** ematen digu. Bi motatakoak dira adjektiboak: izenondoak eta izenlagunak.

Izenondoa **izenaren atzean** azaltzen da (*txakur txiki, leku eder*) eta metatu egin daitezke. Ondorioz ohikoa da **izenondobikoteen** erabilera (*zuri-beltz, gazi-gozo*).

Izenondoen nolakotasun **maila adierazteko, graduatzai-leak** erabiltzen ditugu. Graduatzai-leak **askatuak** hitz askeak dira: **oso, nahiko, guztiz...** Graduatzai-leak **atxikiak**, aldiz, izenondoi lotuta doaz. Hiru mota daude: **-ago, -egi, -en** (*handiago, handiegi, handien*).

**Berdin** izenondoak **antzekotasun handia** duten elementuak erakusten dizkigu: *arropa berdina dugu*.

**Bera** izenondoak, aldiz, **pertsona edo objektu bakarra** adierazten digu: *pertsona bera da*.



## TESTU-TIPOLOGIA. Gertakari historikoa



Historian garrantzia izan duen gertaera bati **gertakari historiko** esaten diogu. Horien inguruko informazioa historia liburuetan, entziklopedietan eta bestelako iturri batzuetan ere aurki daiteke.

Gertaeren ikuspegi zabala eskaintzeko, garaiko **testuingurua** azaldu ohi da; hau da, gertakari nagusia hobeto ulertzen laguntzen diguten **albo-istorioak** kontatzen dira.

Egiturari dagokionez, gertakariak **kronologiki** antolatuta aurkeztu ohi dira testuan. Halaber, elementu **tipografikoak** (izenburua, azpi-izenburuak...) eta elementu **ikonografikoak** (irudiak, argazkiak, denbora-lerroak) ere erabiltzen dira, ulermena hobetu eta informazioa osatze aldera.

## LITERATURA. Lore Jokoak



XIX. mendean, Europan bezala, Euskal Herrian ere **herri-kulturari buruzko interesa** piztu zen, eta 1853an, lehen euskal literatur lehiaketa antolatu zen Lapurdiko Urruñan: Lore Jokoak. **Anton Abadia** izan zen sustatzaile nagusia, eta **Euskal kultura bultzatzeko** asmoz antolatu zituen.

Gerora, Hego Euskal Herrian antolatu ziren Lore Jokoekin txandakatu ziren Iparraldekoak, eta 1879an Elizondon ospatu zen. Bertan, **Felipe Arrese-Beitiaren Ama euskerari azken agurra** lanak irabazi zuen. Aurrerantzean, hainbat herritan ospatu ziren Lore Jokoak.

## IRAKURMENA

- 1 Irakurri ondoko testua eta erantzun galderei.

### Kazetaria robota denekoa

Kazetari lanbidea galtzear dela diote. Dirudienez, aurre-rantzean kazetariaren lana Interneten etengabe sortzen diren edukietan merezi dutenak aukeratzea eta besteei aurkeztea izango da. Hara non, horixe egiten duen robota aurkeztu dute: *pilotu automatikoa*.

Zer den garrantzitsua eta zer ez erabakitzen makina bati uztea arriskutsua ez ote den galdetuko du batek baino gehiagok. Adituak erantzungo dio ez duela berez makinak hori ebazten, baizik eta Interneteko erabiltzaileak, giza-kiak. «Pertsonak dira horren atzean. Twitter da, oraingoz, tresna horren elikadura-iturri nagusia», dio sor-tzaileak.

Izan ere, albiste-biltzaile automatikook Tuitlariek aipatzen dituzten albisteak eta estekak aztertzen dituzte, eta, arrakastaren arabera, guneei batega biltzen dituzte.

Horrez gain, horretan oinarrituta, «marka zuriko albiste-giak» sortu ahal dituzte. Adibidez, Interneteko bizikleta dendaren gunean, txirrindularitzaren inguruko albistegia sortu ahal dute.

- Zein izango da aurrerantzean kazetarien lana?
- Zerk ordezkatzeko du kazetaria lan horretan ere? Nola izendatu dute?
- Nola aukeratu dituzte edukia albiste-biltzaile automatikoak?
- Zer dira *marka zuriko albistegiak*?



## GRAMATIKA

- 2 Osatu perpausak *bera* edo *berdina* izenondoak aukeratuz.

- Anaiaren antz handia duzu; *berdinak/berak* zarete eta!
- Nire aitona eta lehengusuarena *bera/berdina* da.
- Zenbat aldiz errepikatu dizut gauza *berdina/bera*?
- Zu eta biok egun *berdinean/berean* jaio ginen.
- Gelako hormetan ordulari *berdina/bera* dago zintzilik.

- 3 Bete hutsuneak koadroko izenondo askatuak erabilita.

oso / nahiko / lar / samar / izugarri

- \_\_\_\_\_ pozten naiz zugatik; saria merezi duzu!
- \_\_\_\_\_ eguraldi ona dugu gaur; zerua oskarbi dago.
- lazko jertsea txiki \_\_\_\_\_ duzu aurten.
- Jende \_\_\_\_\_ dago tabernan, ez dago mugitzerik!
- Nire lehenengo tarta izateko, \_\_\_\_\_ gozoa atera zait.

- 4 Ordenatu izenlagunak perpausak eratzeko.

- sagarraren/Aldapeko/puntan/adarraren txoria zegoen kantari.
- udaberriaren/lazko/egunetan/hasierako elurra bota zuen.
- gelako/Nire/ondoan/leihoaren/erloju/egurrezko/bat dago.
- iturriko/plazako/Gure/herriko/uraren/zaporea gozoa da.
- egunkariaren/Atzoko/orrialdea/azkeneko irakurri zenuen?

- 5 Aukeratu izenondo graduatzaile egokia perpausak osatzeko.

- Everest da munduko mendirik \_\_\_\_\_.  
a) garaiena b) garaia goa c) garaiegia
- Elefante afrikarrak asiarrak baino belarri \_\_\_\_\_ ditu.  
a) handienak b) handiegiak c) handiagoak
- \_\_\_\_\_ iritsi gara; autobusak alde egin digu!  
a) Beranduago b) Beranduen c) Beranduegi
- Ezin ditut oinetako horiek erosi, \_\_\_\_\_ dira-eta.  
a) garestiagoak b) garestiegiak c) garestienak

## LEXIKOA

- 6 Sortu hitz berriak joera atzizkiak gehituta:

-bera

-kor

-koi

-zale

- musika → \_\_\_\_\_
- herri → \_\_\_\_\_
- bai → \_\_\_\_\_
- min → \_\_\_\_\_
- bihotz → \_\_\_\_\_
- lagun → \_\_\_\_\_
- eman → \_\_\_\_\_
- mendi → \_\_\_\_\_

- 7 Lotu hitz bakoitza dagokion definizioarekin.

- |               |                           |
|---------------|---------------------------|
| Euskaltzale • | Bertsoak gogoko dituenak. |
| Lehiakor •    | Partekatu nahi ez duena.  |
| Berekoi •     | Erraz hausten dena.       |
| Hauskor •     | Lehiarako joera duena.    |
| Bertsozale •  | Euskara maite duena.      |

## ORTOGRAFIA

### 8 Osatu testua *bat* eta *batzuk* modu egokian deklinatuta.

Hau eguraldi zoroa! Batzu , iruditzen zait eguraldia diseinatzen duena erotu egin dela.

Bat bat pentsa lezake batzu nahita ari direla eguraldia aldarazten. Klean, bikote bat zihoan oinez; bat tiradun nikia zeraman; besteak, beroki lodia. Bat , hotzez akabatzen, bestea, ordea, izerditan blai. Bat daki, agian, egun bat , udan eskiatzera joango gara!

### 9 Aukeratu hitz egokia esaldiak osatzeko.

- Poltsan baditut erreal bi; *bata/batak* bestea dirudi.
- Egun *batzuk/batzuetan* mendira joaten naiz zaldiz ibiltzera.
- Hegazti *batzuk/batzuek* milaka kilometro egiten dituzte.
- Txalaparta *batzuk/batzu* harrizkoak izaten dira.

## KOMUNIKAZIOA



### 10 Entzun *Kontzientziaren kateak* eta erantzun galderei.

- Zertarako erabiltzen du Aitziber Garmendiak whatsapp-a?
- Zer mezu mota ez zaio gustatzen? Zergatik?
- Zer erabaki hartu du? Noren aholkuari jarraitu dio eta zein aholku da hori?

## LITERATURA

### 11 Noiz eta non egin ziren Lore Jokoak? Nor izan zen Lore Jokoen bultzatzaile nagusia?

### 12 Zergatik izan ziren garrantzitsuak Lore jokoak?

### 13 Irakurri olerkia eta erantzun galderei.

#### APEXA ETA LOREA

Neguz primadera zenean jabetu,  
Sasi baten hegian apexa zen sortu;  
Leku berean baitzen lorea gertatu,  
Gaixoez elkar zuten bihotzez maitatu!

Eguzkiak ihintza pizten duenean,  
Apexa doa beti hegalez airean;  
Nahi luke loreak segitu bidean,  
Zurtoinak zertako du gelditzen lurtean?

Jean Baptiste Elizanburu

- Zer da apexa? Zer kontatzen da goiko bi bertsoetan?
- Urteko zein urtarotan gertatzen da?



## IDAZTEKO GAITASUNA

## Gertakari historikoa



Azaldu idatziz gertakari historiko hau: Internet-en sorrera. Kontakizunean, unean-uneke gertakariez gain, azaldu garaiko testuingurua.

- Lehenik, irakurri ondoko adierazpenak, eta behar izanez gero, bilatu informazio gehiago.
- Jarraian, ekin idazteari adierazpenetatik abiatuta. Lehenik, eman gertakariaren testuinguruaren berri: zertarako asmatu zen irratia eta? zer-nolako garrantzia izan zuen garai hartan?
- Ondoren, azaldu zehatz-mehatz Interneten sorrera eta zer ekarri digun gertariak.



#### Interneten sorrera:

- AEBko defentsara-erakunde batek abiatu zituen ikerketak.
- 1960ko hamarkadan AEBko 4 unibertsitatek sare bat sortu zuten (ARPANET), ikerlitzailerek euren lanak partekatzeko.
- 70ko hamarkadan bestelako erakundeak ere sartu ziren eta mundu osora zabaltzen hasi zen.
- 2010ean 2.000 milioi erabiltzaile.